




# ZURRIMENDI

Zurriola ikastolako mendigoizale taldea

## 2022ko urriaren 16an, ARRITXULO-BIANDITZ



Mendian ere, Euskaraz Bizi.

MENDIRA MAIZ JOATEN BAZARA, FEDERA ZAITEZ!!!!

### Ibilbidearen deskribapena.

Ibilbidea Oartzunen, Aiako Harria Parke Naturalaren baitan, izanen da.

Hasiera Arrixulo aterpetxeko aparkalekutik izango da eta ezkerreko bidexka jarraituz Arrixulegiko pista iritsiko gara. Pista hori jarraituz, Arrixulegiko bordara iristen garenean, GR-121 ibilbide luzearekin egingo dugu bat. GR-121 jarraituz Errenga inguratuko dugu eta Irumugarrietara iritsiko gara. Puntu horretan GR-121 utzi eta ezkerrean Bianditz aldera abiatuko gara. Arrixulangañako mairubaratzak utzi eta Bianditzeko gainera (840 m) iritsiko gara. Itzulera Oartzun-Lesaka mugatik izanen da. Errengako mairubaratzetara iristean eskuineruntz egin eta Errengako gainera (794 m) iritsiko gara. Ibilbidea Arrixuloko aterpetxean amaituko dugu.

Arrixuloko aterpetxean bazkaltzeko aukera egongo da. Bazkarirako izena eman beharko da eta epea urriaren 12an, asteazken gauean, amaituko da.

**Denbora: 3.5 ordu.**

**Desnibela (positiboa): 489 m.**

**Luzera: 8 Km.**

### OHARRAK:

- **Irteera:** Goizeko 9:00etan, Hurran.
- **Garraioa:** Bakoitzak berea
- **Bazkaria:** Arrixuloko aterpetxean (hautazkoa)

- **Hurrengo irteera:** Azaroaren 20an Gaztelu

**Argibideak:**

watxap taldea : [ZURRIMENDI 2021-2023](https://www.zurrimendi2021-2023.com)

posta-e: [zurrimendi@zurriolaikastola.eus](mailto:zurrimendi@zurriolaikastola.eus)

web: [www.zurriolaikastola.eus](http://www.zurriolaikastola.eus)